

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2018ko laguntzen itzarote-zerrendako eskatzaileei laguntzak emateko ebazpena

2018ko urriaren 26ko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak «Gasteizen lan-kontratazioarako laguntza ekonomikoak emateko udal programaren deialdia, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2016ko ekitaldiko laguntza deialdiaren barruan» deiturikoaren deialdi publikoa eta oinarri arautzaileak, zein 2018ko azaroaren 9ko ALHAOn (129. Zenbakia) argitaratu baitziren. Aipatutako deialdiak milioi bat eta berrogeita hamar mila euroko (1.050.000,00 euro) aurrekontu-zuzkidura zuen, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak finantzatzen zuen, VI enplegu planean (2018koa).

Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorren Saileko zinegotziaren 2019ko martxoaren 7ko ebazpena tarteko ebatzi zen deialdia, baina baldintza honen pean: diruz lagundutako jarduera deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintza, betekizun eta dokumentuen arabera egin dela fede ematen duten agiriak aurkeztea 2019ko uztailaren 15a baino lehen. Gainerako eskabideekin itzarote zerrenda egin zen.

Justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu eta aztertu zelarik, Prestakuntza eta Enplegu Sustapenerako Zerbitzuak nahitaezko txostena egin zuen 2019ko abuztuaren 19an, eta bertan alderdi hauek zehazten dira, besteak beste:

Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorren Saileko zinegotzi ordezkariaren 2019ko martxoaren 7ko ebazpenaren bidez esleitu ziren Gasteizko udalerriko enpresen lan-kontratazioetarako laguntza ekonomikoen udal programaren barruan eskatutako laguntzak, eta 2019ko martxoaren 29ko ALHAOn argitaratu (38. zenbakia); Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2017ko ekitaldiko laguntza deialdiaren barruan eman ziren horiek (2018ko azaroaren 9ko ALHAO, 129. zenbakia).

Ebazpenean, orobat, itzarote-zerrenda eratu zen deialdiaren betekizunak beteta ere aurrekontu-zuzkidura agortzeagatik diru-laguntzarik gabe geratu zirenekin, 16. oinarriaren ildotik.

2019ko ekainaren 21eko eta uztailaren 17ko datuz justifikazio partzialari buruz egindako txosten teknikoak 440.627,16 euroko soberakina du emaitza, ukatu diren diru-laguntzak, enpresa onuradunek berariaz uko egindako diru-laguntzak, eta zenbatekoa gutxitu zaien diru-laguntzak aintzat harturik.

Soberakinak zeudenez, itzarote-zerrendako hurrengo hirurogeita bederatzi eskabideei behin-behineko beste esleipen bat egitea proposatzen da, 439.466,70 euroko zenbatekoa osatu arte; esleipena behin betikoa izango da baldin eta oinarrietan ezarritako betekizunak bete eta deialdiaren 14. oinarrian adierazitako agiriak epearen barruan aurkezten badira.

Laguntzak legez ezarritako moduan izapidetu dira, eta soberakinak sortu dira, arrazoi desberdinengatik: batetik, udalaren diru-laguntzak lortu dituzten enpresa edo erakundeek egindako borondatezko ukoak, diru-laguntzak xede dituen jarduerak justifikatzerik ezin ez dutelako; bestetik, justifikazioa aurkeztu ondoren, ez dituztelako deialdiko baldintzak betetzen; beraz, aipatutako

txostenetan adierazten denez, 440.627,16 euroko saldoa geratzen da, eta itxarote-zerrendako hurrengo hirurogeita bederatzi eskatzaileei behin-behinean esleitzeko baliatuko da hori. Oinarrietan ezarritako betekizunak bete eta deialdiaren 14. oinarrian adierazitako agiriak eman zaien epearen barruan aurkeztu beharko dituzte horretarako.

Proposamena aztertu ondoren, Hautatze eta Jarraipen Batzordeak 2019ko uztailaren 19an egindako bilkuran analizatu eta eztabaidatu zen; egiaztatutako diru-soberakina (440.627,16 euro) kontuan izanik, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari itxarote-zerrendan geratutako enpresei eta gainerako entitateei laguntzak emateko proposamena egitea erabaki zen –2019ko martxoaren 7an Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariak emandako ebazpenean jasotakoarekin bat–, diru-laguntzen deialdi horretan sortutako soberakineko funtsak agortu arte.

Deialdiaren 16. oinarrian ezarritako prozedurarekin bat etorri eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Araudia onetsi zeneko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 63. 63.3 artikulua ildotik, enpresa onuradunek diru-laguntzei uko egiten badiete, edo ezarritako baldintzak betetzen ez dituztelako laguntzak ukatzen bazaizkie, beste deialdirik egin beharrik gabe erabaki ahal izango du organo emaileak itxarote-zerrendako enpresei ematea diru-laguntza, puntuazio hurrenkeraren arabera, libre geratutako kreditua agortu arte.

2017ko azaroaren 24an egindako bilkuran Tokiko Gobernu Batzarrak onetsitako prozeduraren 16. oinarriaren arabera, ekonomia-sustapen Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak du eskumena eskabideak ebatzteko.

Horren haritik, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak ebazpen hau eman du:

Lehena. Itxarote-zerrendan dauden hirurogeita bederatzi eskatzaileei behin-behinekoan esleitzea laguntzak, 440.627,16 euroan, baldintza hau jarrita: diruz lagundutako jardueraren fede ematen duten egiaztagiria aurkeztea bost eguneko epean, 14. oinarrian (nahitaezko agiriak) ezarritako moduan, 439.466,70 euroko zenbatekoa osatu arte.

	ENPRESAREN IFZ	KONTRATU DEN PERTSONA	>55 URTE	SEXUA	45-54 URTE	LANGABEZIAN	DIRU-SARREPAK BERMATZEKO ERRENTA	ANIZTASUN FUNTZIONALA	<35 URTE	JARDUNALDIA	KONTRATUAREN IRAUPENA	PUNTUAK, GUZTIRA	ZENBATEKOA
1º	B01461136	I. A. R. E.	0	30	0	0	0	0	20	40	0	90	9.000,00 €
2º	B01238450	E. L. G.	0	30	0	0	0	0	20	40	0	90	9.000,00 €
3º	B01167873	A. M. G.	0	30	0	0	0	0	20	40	0	90	9.000,00 €
4º	B01519925	V. T. S. C.	0	30	0	0	0	0	20	40	0	90	9.000,00 €
5º	13132421L	D. M. F. de R. M.	0	30	0	0	0	0	20	40	0	90	9.000,00 €
6º	45313768L	L. C. B.	0	30	0	0	0	0	20	40	0	90	9.000,00 €
7º	B01560259	I. M. S.	0	30	0	0	0	0	20	40	0	90	9.000,00 €
8º	B95348843	J. V. G.	0	30	0	0	0	0	20	40	0	90	9.000,00 €
9º	B01562651	E. A. O.	0	30	0	0	0	0	20	40	0	90	9.000,00 €
10º	B01554252	N. N. L. F.	0	30	0	0	0	0	20	40	0	90	9.000,00 €
11º	44152611V	S. M. M.	0	30	0	0	0	0	20	40	0	90	9.000,00 €
12º	A01007442	Mª I. E. C.	0	30	0	0	0	0	0	40	20	90	6.000,00 €
13º	B01436310	Mª M. J. C.	0	30	0	0	0	0	0	40	20	90	6.000,00 €
14º	16235360M	S. A. B. A.	0	30	0	50	0	0	0	0	0	80	4.500,00 €
15º	16235360M	A. B. G. del C. R.	0	30	0	50	0	0	0	0	0	80	4.500,00 €
16º	16270712Y	J. C. C.	0	0	40	0	0	0	0	0	40	80	3.000,00 €
17º	B01531524	J. A. C. A.	0	0	40	0	0	0	0	40	0	80	6.000,00 €
18º	B01323799	J. J. A. D.	0	0	40	0	0	0	0	40	0	80	6.000,00 €
19º	B01404227	J. M. G. S.	0	0	40	0	0	0	0	40	0	80	6.000,00 €
20º	A01012822	M. F. A.	0	0	40	0	0	0	0	40	0	80	6.000,00 €
21º	B01150507	E. M. B. A. B. A.	0	0	40	0	0	0	0	40	0	80	6.000,00 €
22º	B01323336	L. Mª M. M.	0	0	40	0	0	0	0	40	0	80	6.000,00 €
23º	72719841M	A. I. C. O. de R.	0	30	40	0	0	0	0	10	0	80	5.025,00 €
24º	B01148097	I. D. de C. M.	0	0	0	0	0	0	0	40	40	80	6.000,00 €
25º	B01452887	I. S. A.	0	0	0	0	0	0	0	40	40	80	6.000,00 €
26º	A01116268	D. D. de D.	0	0	0	0	0	0	0	40	40	80	6.000,00 €
27º	B01485028	S. C. A.	0	0	0	0	0	0	0	40	40	80	6.000,00 €
28º	B01564111	R. E. G. de G.	0	0	0	0	0	0	0	40	40	80	6.000,00 €
29º	B34215715	J. C. C.	0	0	0	0	0	0	0	40	40	80	6.000,00 €
30º	B20393666	E. Y.	0	0	0	0	0	0	0	40	40	80	6.000,00 €
31º	X5920463X	A. D.	0	0	0	0	0	0	0	40	40	80	6.000,00 €
32º	B01339621	I. S. M. L.	0	0	0	0	0	0	0	40	40	80	6.000,00 €
33º	A01029313	D. M. R.	0	0	0	0	0	0	0	40	40	80	6.000,00 €
34º	A01038421	A. A.	0	0	0	0	0	0	0	40	40	80	6.000,00 €
35º	R0100041C	I. O. B.	0	0	0	0	0	0	0	40	40	80	6.000,00 €
36º	16256755X	A. P. B. B.	0	30	0	0	0	0	0	10	40	80	4.680,00 €
37º	G01033547	Y. Z. M.	0	0	0	0	0	0	20	40	20	80	9.000,00 €

38°	B01518075	M. S. A. A.	0	0	0	0	0	0	20	40	20	80	9.000,00 €
39°	A48285399	U. G. B.	0	0	0	0	0	0	20	40	20	80	9.000,00 €
40°	A01006121	I. D.	0	0	0	0	0	0	20	40	20	80	9.000,00 €
41°	A01006121	D. S. A.	0	0	0	0	0	0	20	40	20	80	9.000,00 €
42°	J01489673	J. R. N.	0	0	0	0	0	0	20	40	20	80	9.000,00 €
43°	B95348843	Ó. R. A.	0	0	0	0	0	15	0	40	20	75	6.000,00 €
44°	72728640H	K. C. D. N. L. de la P.	0	30	40	0	0	0	0	0	0	70	3.159,60 €
45°	B01402627	R. A. V. A.	0	30	40	0	0	0	0	0	0	70	3.000,00 €
46°	B01141084	E. V. C. P.	0	30	40	0	0	0	0	0	0	70	4.221,00 €
47°	22752345D	C. M. M.	0	30	40	0	0	0	0	0	0	70	4.050,00 €
48°	44683246L	Mª E. S. B.	0	30	0	0	0	0	0	0	40	70	3.120,00 €
49°	X8834399F	Mª Á. D. C.	0	30	0	0	0	0	0	0	40	70	3.120,00 €
50°	B01347525	M. A. R.	0	30	0	0	0	0	0	0	40	70	3.000,00 €
51°	B01539154	B. R. B.	0	30	0	0	0	0	0	0	40	70	3.176,40 €
52°	B01539154	Mª I. B. P.	0	30	0	0	0	0	0	0	40	70	4.236,00 €
53°	B01449602	C. E. C. O. (Sustituido por A. J. L.)	0	0	0	0	0	0	20	10	40	70	7.200,00 €
54°	B01521905	A. F. O. de M.	0	0	0	0	0	0	20	10	40	70	7.020,00 €
55°	X8834399F	M. E. B.	0	0	0	0	0	0	20	10	40	70	7.020,00 €
56°	11910382Q	F. S. H.	0	0	0	0	0	0	20	10	40	70	8.010,00 €
57°	B01562693	M. B. C.	0	30	0	0	0	0	0	40	0	70	6.000,00 €
58°	B31310790	L. M. G.	0	30	0	0	0	0	0	40	0	70	6.000,00 €
59°	B31310790	M. L. V. I.	0	30	0	0	0	0	0	40	0	70	6.000,00 €
60°	B01561513	L. V. L.	0	30	0	0	0	0	0	40	0	70	6.000,00 €
61°	J01479054	L. O. S.	0	30	0	0	0	0	0	40	0	70	6.000,00 €
62°	B01569797	A. B. F.	0	30	0	0	0	0	0	40	0	70	6.000,00 €
63°	B01503069	N. H. E.	0	30	0	0	0	0	0	40	0	70	6.000,00 €
64°	15398775E	C. R. A.	0	30	0	0	0	0	0	40	0	70	6.000,00 €
65°	B01141084	N. S. V.	0	30	0	0	0	0	0	40	0	70	6.000,00 €
66°	B01560259	S. C. O.	0	30	0	0	0	0	0	40	0	70	6.000,00 €
67°	B01554252	B. M. de R. O.	0	30	0	0	0	0	0	40	0	70	6.000,00 €
68°	B01526185	I. M. G.	0	30	0	0	0	0	0	40	0	70	6.000,00 €
69°	G01033547	I. M. I.	0	30	0	0	0	0	20	0	20	70	6.428,70 €

Bigarrena. Laguntzen onuradunek deialdiaren oinarrietan ezarritako betekizunak betetzen ez badituzte, laguntza horiek bertan behera utzi ahalko dira, eta laguntza osoa edo zati bat ordainduta badago, jasotako diru-kopurua itzultzeko eskatuko zaie.

Hirugarrena. Erabaki hau udalaren web-orrian eta ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpena onuradunei jakinaraztea. Orobat jakinaraztea ebazpenaren aurka, administrazio-bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko dela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik; bestela, aukeran, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahalko da, ebazpena eman duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako epaitegietan, errekurtsua ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko uztailaren 24an

Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI JÁUREGUI